

DIRU ITURRIAK

Gure bezeroak gimnasioan ariketa fisikoa egitera eta energia sortzera sartzen direnak dira, eskura ditugun makinaren bidez. Gure lehiakideen prezioak kontuan hartuta (Iru Sport Gym), hilean 45 euroko prezioa baitu, askoz ere prezio eskuragarriagoa jartzea erabaki dugu, hilean 25 euro ordainduta. Bezeroak 25 euroak ordaindu beharko ditu izena ematen duenean, eta hilabetea osatzen denean berriro ordaindu beharko du, horrela bezeroak desapuntatzea erabaki arte. Era berean, egunetan ordaintzeko aukera ematen dugu; agian, bezero batek astean egun bat edo bi baino ez ditu etorri nahi, ezin delako denbora libre askorik eman, eta baliteke ekonomikoagoa izatea sarrera bat 3 euroan ordainduta.

Gure bezeroez gain, udalaren aldetik ere dirua irabazten dugu. Udalak makinekin sortutako energia erosiko baligu. Lortuko dugun energia desberdina izango da hileroko, beraz, udaletik jasoko dugun dirua ez da beti berdina izango. Gainera, gure bezeroek gutxiago ordaindu beharko dute argia, ura eta gasa, hau da, deskontuak egingo ditu udalarentzat sortutako energiagatik.



Makina bakoitzak konfigurazio mota bat izango du, eta, bertan, erabili aurretik, bezeroek izena eta guk emango diegun pasahitza sartu beharko dituzte. Horrela, pertsona bakoitzak sortzen duen energia kontrolatuko dugu, hilabetearen amaieran udalak deskontuak izan ditzan.

